

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran erantzuteko hurrengo **interpelazioa** egiten dio **Rodolfo Ares, Barne Sailburuari**, “**Barne sailaren barruan sortu duten Genero indarkeria jasan duten biktimen harretarako zuzendaritzari buruz**”.

ZIOA

Genero indarkeria jasan duten Biktimen Harretarako Zuzendaritza berria abian jartzeko asmoa erakutsi du Eusko Jaurlaritzak. Emakundeko zuzendari berriak, Maria Silvestrek, Legebiltzarrean egindako agerraldian azaldu zuenez, Zuzendaritza berri honi egokituko zaio “Etxeko tratatu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea”ren koordinazioa orain artean Emakunderen esku egon den arren. Gure ustez, era horretako zuzendaritza bat Barne Sailaren barruan kokatzeak indarkeria matxista eta berdintasunaren aldeko borroka disoziatzeko arriskua dakar. Berdintasun politikak ahalik eta zeharkakoak izan behar dutelako ezarri, sortu zenean, Emakunde Lehendakaritza pean. Eta emakumeen aurkako indarkeria berdintasunaren borrokatik bereizi ezin delako hartzen zuen Emakundek bere gain erakunde arteko jarraipen batzordearen koordinazioa.

Hori dela eta, interpelazioa egiten diogu Rodolfo Aresi:

INTERPELAZIOA

- Ze funtzio izango ditu Genero indarkeriaren Biktimen Harretarako Zuzendaritza berri horrek? Zer ekarpen egingo du egungo egoerarekin alderatuz?
- Zergatik eta ze helbururekin eskualdatu da “Etxeko tratatu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea”ren koordinazioa Emakundetik zuzendaritza berrira?

Gasteizen, 2009ko uztailaren 1ean

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea